

RASFF

TXOSTENA


ALERTAK eta
JAKINARAZPENAK

PENTSUAK


Jakinarazpenen kategorizazioa
Atzemandako arriskuen jatorria
Tartean dauden produktu-motak
Tartean dauden lehengaiak
Aurreko urteen arteko konparazioa

JAKINARAZPENEN KATEGORIZAZIOA


2015ean pentsuei buruzko 203 jakinarazpen egin dira. Horietatik **19 (% 9) alertak izan dira, 124 (% 61) informazio-jakinazpenak eta 60 (% 30) mugan egin diren ukapenak.**



RASFFen bidez urtean zehar jasotako jakinarazpen kopuruaren joerari dagokionez, nabaritu da **nabarmen gora egin duela mugan egindako ukapenen kopuruak. Bestalde, azken lauhilekoan, zertxobait behera egin du informazio-jakinazpenen kopuruak.**




Tartean dauden produktuen jatorrizko herrialdeei dagokienez, **hirugarren herrialdeek egin dituzte jakinarazpenen % 49.**



ATZEMANDAKO ARRISKUEN JATORRIA


2015ean atzemandako arrisku gehienak **mikrobiologikoak izan dira (% 56) eta jarraian PAEak (% 10), mikotoxinak (% 9), dioxinak (% 5) eta metal astunak (% 5) ditugu. Baimendu gabeko OGMei dagokienez, RASFFek ez du inolako jakinarazpenik jaso 2015ean.**



Arrisku mikrobiologikoei dagokienez, **Salmonellak** eragin ditu jakinarazpen gehienak (**105**). Salmonella atzeman den lehengaien artean **koltza-produktuak, arrain-irinak, prozesatutako animalia-proteinak eta txakurrentzako mastekagarriak** daude.


B1 aflatoxina izan da arrisku mota honekin lotutako jakinarazpen gehienetan identifikatutako mikotoxina, batik bat **kakahueteetan** eta **artoan** atzeman delako.

Lauhilekoka, aipatzekoa da bigarren lauhilekoan mikrobiologiak eragindako jakinarazpen kopuruak behera egin duela, gainerako lauhilekoekin erkatuz gero.




TARTEAN DAUDEN PRODUKTU MOTAK

Produktuka aztertuz gero, **lehengaiak eragin dituzte jasotako jakinarazpenen % 71, laguntza-animalientzako pentsuek % 16, gehigarri eta aurre-nahasketek % 2 eta loditzeko animalientzako pentsuek % 10.**




Jakinarazpenetan tartean dauden produktuen bilakaera, lauhilekoko:




TARTEAN DAUDEN LEHENGAIK

Nabarmentzekoa da lehengai hauek eragin dituztela jakinarazpen gehien: **koltza-produktuek (29)**, **laguntza-animalientzako pentsuek (28)**, **arrain-irinek (21)**, **loditzeko animalientzako pentsuek (21)**, **prozesatutako animalia-proteinek (21)**, **soja-produktuek (18)** eta **haragi/luma/odol-irinek (12)**.




Honako grafiko honetan jakinarazpenen bilakaera azaltzen da, lauhilekoko, tartean dauden lehengaiak aintzat hartuta.



AURREKO URTEEN ARTEKO KONPARAZIOA

2015ean 203 jakinarazpen egin dira; 2014an, berriz, 317 jakinarazpen. Aurreko urtearen aldean, **2015ean nabarmen egin du behera alerten kopuruak** eta neurrian egin dute behera nola informazio-jakinazpenen kopuruak, hala mugan egindako ukapenen kopuruak.



2011. urtetik 2015. urtera bitartean identifikatutako arriskuei dagokienez, nabarmendu egin behar da mikrobiologia-arriskuen eragina, betiere atzemandako gainontzeko arriskuekin erkatuz gero. Oro har, 2015ean identifikatutako arrisku gehienek jakinarazpenak murriztu egin dira, aurreko urteen aldean, **PATen presentziak eragindako intzidentzien kasuan salbu**. Bestalde, nabarmendu egin behar da 2015ean, aurreko urtearekin erkatuz gero, **baimendu gabeko OGMen presentziak ez duela jakinarazpenik eragin**.

